

# Donostian, 2012ko abenduaren 14an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagrario,  
Azkarate, Miren,  
Coyos, Jean-Baptiste,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Lizundia, Jose Luis,  
Oihartzabal, Beñat,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Salaberri, Patxi,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola, Ibon,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi,  
Videgain, Xarles, eta  
Zalbide, Mikel  
Erramun Osa, idazkariordea,  
Joseba Zabaleta, kudeatzailea, eta  
Alfontso Mujika,  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** A. Arejitak ahala X. Kintanari; P. Goenagak ahala M. L. Oñederrari; J. Irazu «B. Atxaga»k ahala A. Urrutiari; J. M. Torrealdaik ahala A. Sagarnari; P. Zabaletak ahala A. Iñigori.

Bilbotik Donostiara doan autopistan istripu bat izan denez gero, euskaltzainburua eta idazkaria berandu iritsi dira. Horren ondorioz, batzarra goizeko 10:45ean hasi da, Donostiako Diputazioaren Jauregian, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko euskaltzain guztiak agurtu ditu, ondoren batzarrari hasiera emateko.

**1. Osoko Bilkurako (2012-09-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.** A. Urrutiak eta J. L. Lizundiak ekarririko iruzkinak idazkariordeak aurkeztu ditu. Ontzat eman dira. Ondorioz, 2012ko irailaren 28ko bilera-agiria onartu da.

**2. Bilkura bereziko (2012-10-18) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.** Ez da oharririk egon, beraz, Bilkura bereziko 2012ko urriaren 18ko bilera-agiria bere horretan onartu da.

**3. Osoko bilkurako (2012-10-18) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.** Idazkerazko eta puntuaziozko oharrak jaso dira, eta idazkariordeak aurkeztu ditu. Guztiak ontzat eman dira. Ondorioz, 2012ko urriaren 18ko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

**4. Ohiz kanpoko Osoko bilkurako (2012-10-19) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.** A. Urrutiaren, B. Oihartzabalen eta M. L. Oñederraren oharrak jaso dira. Era berean, idazkerazko eta puntuaziozko zenbait iruzkin ere jaso dira. Guztiak aurkeztu ditu idazkariordeak. Denak onartu dira, beraz, Ohiz kanpoko Osoko bilkurako 2012ko urriaren 19ko bilera-agiria onartu da.

#### **5. Exonomastika:**

**5.1. Astronomia (I): planeten eta planeta nanoen izenak onartu, hala erabakiko balitz.**

Aurreko Osoko bilkuran abenduaren hirua arteko aldia ireki zen, ekarpenak eta egin ahal izateko. Ez da oharririk etorri eta, beraz, zerrendako izenak ontzat eman dira.

**5.2. Astronomia (II): sateliteen izenak aurkeztu.**

Hitza A. Mujikari eman zaio, eta euskaltzainei karpetan paperez banaturiko txostenean izendegi hau osatzeko erabiliriko prozedura azaldu zaie, euskararen inguruko nazioarteko hizkuntza nagusietako ereduak kontuan izanda. Oinarritz, mitologia klasikoko pertsonaien izenak letraldatzeko, Euskaltzaindian erabakirik irizpideak berak erabili dira, koherentzia mantentzeko. Hizkuntza batzuetan agertzen diren kontraesan batzuk ere azpimarratu dira.

X. Kintanak zerrenda honetako hitzak, eguneroko hizkuntzan maiztasun handirik ukan ez arren, entziklopedia, testu-liburu, egunkari-aldizkari eta dibulgazio-idazkietan duten garrantzia azpimarratu du. P. Uribarrenek izen horietatik, erabilienak behintzat, lehenbailehen argitaratzea komeniko litzatekeela esan du. Ondoren, oharrak bidaltzeko epea finkatu da, hona hemen: 2013ko urtarrilaren 14a.

6. puntua etenaren osterako utzi da.

**6. Euskaltzaindiaren batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen 2013. urteko planak aurkeztu eta onartu, hala erabakiko balitz.**

E. Osa idazkariordeak azaldu du, oraindik batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzu batzuek ez dituztela beren aurreikuspenen programak amaitu eta, horregatik, aurkezteko epea urtarrilerako luzatzea proposatu du. Ontzat eman da. Edonola ere, euskaltzainburuak programa horiek lehenbailehen behar ditugula gogorarazi du, herri-aginteei aurkeztu behar zaizkie eta.

Inguruabar horretan, J. L. Lizundia, 2012ko urriaren 19ko Ohiz kanpoko bilkuran adierazitakoaren arabera, egitasmo batzuk geroratzen direla ikustean kezkatu agertu da, besteak beste, Euskaltzaindiaren Historia proiektua geroraturik geratu dela ikusten baitu. Hori ez duela onartzen esan du eta bere laguntzaile den Iasmina Gorroñok Euskaltzaindian lanean segituko duen ala ez jakin nahi luke. A. Urrutiak Euskaltzainditik inor ez dela kaleratuko adierazi du, hori izan baitzen urriaren hemeretziko bilkuran aurkezturiko txostenean jasorikoa. Era berean, egitasmoekin zer egin erabaki aurretik, proiektuen zuzendariekin eta zerbitzu-emaileekin hitz egingo dela esan du. Gainera, oraindik ezin esan daiteke zehazki zer egingo den, Euskaltzaindiak erakundeetatik zenbateko laguntza jasoko duen jakiterik izan ez duelako.

Puntu hau aztertu ondoren, *Euskera* agerkariaren 2011ko bi aleak aurkezteko etena egin da. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Jauregian dagoen Julio Urkixo gelara hurreratu dira euskaltzainak. Aurkezpenean parte hartu dute: A. Urrutia euskaltzainburuak, J. Haritschelhar Literatura Ikerketa batzordeburuak eta S. Aleman Sustapen batzordeburuak.

12:40 direnean Osoko bilkurari jarraipena eman zaio.

## 7. 2013. urteko egutegia onartzea

2012ko urriaren 18ko Osoko bilkuran 2013. urteko behin-behineko egutegia aurkeztu zuen idazkariordeak. Ekarpinak egiteko abenduaren hirua arteko aldia ireki zen. Ez da iruzkinik edo oharrik jaso. Ondorioz, 2013. urteko egutegia onartu da. Hona hemen:

### **Urtarrilaren 25ean, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.**

Osoko bilkura.

Ageriko bilkura (Hilberri-txostenak).

### **Otsailaren 22an, Bilbon, egoitzan.**

Osoko bilkura.

### **Martxoaren 21-22an, Bilbon, egoitzan.**

Osoko bilkura.

XVIII. Barne jardunaldiak, Bilbon, egoitzan.

**Apirilaren 26an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.**

Osoko bilkura.

**Maiatzaren 31n, Bilbon, egoitzan.**

Osoko bilkura.

**Ekainaren 28an, Gasteizen, Arabako Foru Aldundian.**

Osoko bilkura.

**Uztailaren 19an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.**

Osoko bilkura.

**Irailaren 27an, Iruñean (lekua, zehazteko).**

Osoko bilkura.

**Urriaren 4an, Tuteran.**

Ageriko bilkura (*Nafarroa Oinez*). Urrian ez da Osoko bilkurarik aurreikusi.

**Azaroaren 15ean, Iruñean.**

XVIII. Jagon jardunaldia.

**Azaroaren 29an, Baionan.**

Osoko bilkura. Arratsaldean Ageriko bilkura.

**Abenduaren 20an (lekua, finkatzeko).**

Osoko bilkura.

J. L. Lizundiak iradokizun bat egin du, Seber Altuberen heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, kontuan izateko lehenago ere, S. Altube eta L. L. Bonaparteren omenez, halako omenaldiak egin zirela, berriz ere toki berean egin ez daitezten. Era berean, Eusebio Maria Azkue jaio zela bigarren mendeurrena dela eta, zerbait antolatu daitekeen galdetu du. E. Osak adierazi dio 2013. urtean L. L. Bonaparteren, Seber Altuberen eta Inazio Eizmendi Manterola *Basarriren* urteurrenak lehenestea proposatu zela aurreko Osoko bilkuran. Ondorioz, ditugun baliabideak ditugunez gero, proposamen horiek garatzen ahalegintzea iradoki du.

M. Azkaratek galdetu du ea hilberri-txostenak zer ordutan egingo diren. Goi-zean, Osoko bilkuraren ondoan izanen direla erantzun dio idazkariordeak. X. Vi-degainek esan du maiatzean Baionan nazioartean atlasgintzan ari diren arteko bilkura eginen dela Baionan, eta agian, biharamunean, posible litzatekeela Bonaparteren funtsekin erakusketaren bat antolatzea. Ideia ontzat eman da.

Programako gai batzuk zehaztea geroko utzirik, horrela 2013ko egutegia ontzat eman da.

### 9. 2013. urterako aurrekontuak, informazioa eman

Hasteko, J. Zabaleta kudeatzaileak 2012ko urteko behin-behineko emaitza ekonomikoak erakutsi eta xeheki azaldu ditu, dauden aurreikuspen eta berrespenekin. Erakundeen emaitzak ere, frogatuak eta ustezkoak ere eskaini ditu. Informazio berria heldu ahala, hori ere jakinaraziko duela esan du.

A. Urrutiak kudeatzaileari galdera egin dio, 2012ko urteko kontuak nola geldituko diren jakiteko. J. Zabaletak erantzun dio kontuak ez daudela oraindik amaiturik, baina aurtun defizitik ez dela izanen. Gainera, 2013ko diru-laguntza berriak jaso arteko aurreikuspenez ere hitz egin du eta adierazi du Euskaltzaindiak bere eguneroko konpromisoei erantzun ahal izateko, hurrengo lau hilabetera arte baduela erreserbarik. Hortaz, 2012. urtean Euskaltzaindiak inorekin zorrik eduki gabe eta defizit egin gabe amaituko du ekitaldia.

2013. urteari dagokionez, Euskaltzaindiaren kudeatzaileak, sarrerei eta gastuei buruzko azken berriak azaldu ditu. Horien artean, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak aurkeztu berri dituzten aurrekontu-proiektuetan proposaturiko ekarpenen nondik norakoak. Eusko Jaurlaritzari buruz ez dago informaziorik, Gobernuaren eratu behar baita lehenbizi, horren ondoren, EAEko Aurrekontuen aurreproiektua prestatuko dute, beraz, otsaila arte Euskaltzaindiak zer jaso dezakeen ez da jakingo.

J. Haritschelharrek Euskararen Erakunde Publikoak 2013. urtean egingo duen ekarpenari buruz galdegin du. Ez dago mementoz erantzunik. A. Urrutiak azaroaren hamaseian Baionan egin ziren XVII. Jagon Jardunaldian Frantxua Maitiarekin, EEPko presidentearekin, izaniko iritzi-trukea azaldu du. Murrizketaren bat egon liteke. Nolanahi ere, EEP erakundeak Eusko Jaurlaritzatik jasoko duen laguntzaren araberakoa izango da, beraz, oraindik ezin jakin daiteke. F. Maitiak 2012ko laguntzari eusteko borondatea duela agertu du, horretarako baliabideak dituen neurrian.

Puntu honen segidan, bilera-deiko 6. aztergaia jorratu da.

### 6. Euskaltzaindiko urgazleak proposatzeko eta izendatzeko egutegia aurkeztu eta onartu, hala erabakiko balitz

P. Uribarren euskaltzainak egindako txostena kontuan harturik, Zuzendaritzak, Baionan 2012ko abenduaren 11n onarturiko proposamena irakurri du euskaltzain-

buruak, paperean idatzirikoa banatu eta gero. Hor, hautagaiak aurkezteko bi deialdi egitea proposatzen da, bata 2013ko urtarrilean irekiko litzateke, eta bestea, 2013ko irailean. Proposamenak batzordeek eta lantaldeek egingo lituzkete, bi euskaltzain osok sinaturik. Hor bakoitzaren merezimenduak argi utzi beharko lirarteke. A. Urrutiaren ustez kopurua mugatu beharko litzateke, urgazle ugari izendatu dilakoko, izendapenak balioa gal ez dezan. Batzorde bakoitzak hartu beharko luke erantzukizun hori eta lantalde guztiekin berdintasunez jokatu beharko litzateke, Zuzendaritzaren ustez.

Euskaltzaindiarekin aspaldian lanean ari diren pertsonen egoera une honetan nolakoa den jakin dadin, E. Osak batzorde eta lantaldeetako kideen zerrenda banatu du, hor euskaltzain urgazle diren ala ez garbi erakusteko. Idazkariordeak, halaber, zerrenda hori nolako irizpideez eratu den azaldu du, eta argitasunak eman ditu azken urteotan ibilirikoa lankideez.

J. L. Lizundiak euskaltzainburuak arrazoia daukala uste du, hautagaien curriculumari dagokionez. Era berean, bigarren txandako hautagaiak denboraz pixka bat aurreratzea proposatzen du. Ongi iritzi dio A. Urrutiak.

P. Salaburuk ez du uste egokia denik batzordeek proposamenak egitea, eta batzordeetatik kanpoko jendea proposatzean zer bultzatu nahi den galdetu du. I. Sarasolak lehenagoko irizpideari ongi deritza: bai barrukoak eta bai kanpokoak. X. Kintanak ere horri eutsi dio, barruko zein kanpoko euskaltzaleak saritzeko. Oreak litzateke arazoa: zenbana egin.

M. Azkaratek, P. Salabururekin bat, batzorde batzuetan izendapenak egiteak problema sor lezakeela uste du. P. Uribarrenek pentsatzen du kanpokoek lana aintortzea ere beharrezkoa dela, baina zenbat urtetan ibili diren kontuan hartuta. B. Oihartzabalek esan du izendapen askorekin ere kopuru osoa ez dela gehiegi aldatzen, zenbait kide urtero-urtero gure artean joan ere egiten baitira. I. Sarasolak gogoetarako gai bat agertu du: R. Saizarbitoria urgazlea da, baina ez da Euskaltzaindian agertu ere egin. Zer da urgazle izatea?

J. L. Lizundiak Arautegia gogorarazi du: hautagaiak euskarari zerbitzu nabarmenak emandakoak dirateke. Kopurua jaitsi eta gauzak errazteko, berak banatu den batzordeetako zerrendatik aholkulariak kentzea proposatzen du. P. Uribarrenen bidetik, euskalgintzan zenbat denbora daramaten kontuan hartuko luke. J. Haritschelharrek lehen ere euskal lanean ari zirenak sartzen ahalegintzen zirela azpimarratu du, eta Euskaltzaindiaren ohorerakoak hartu beharko lirartekeela. I. Sarasolak uste du hau ez dela unerik egokiena proposamen konkretuak egiteko. P.

Uribarrenek batzorde bakoitzak bina izendatzea proposatu du. B. Oihartzabalek uste duenez, proposamena batzordeek egin beharko lukete.

A. Urrutiaren aburuz, kontratupean akademiaren ordaina jasotzen dutenak ere, merezimendudunak dira, baina bi munduak kontuan hartu beharra dago, alegia, borondatez Euskaltzaindiaren batzordeetan parte hartzen dutenak eta ordaina jasotzen dutenak, eta, pentsatzen du ondo legokeela martxoko barne jardunaldiez baliatzea proposamenak egiteko. I. Sarasola A. Urrutiaren proposamenaren alde azaldu da eta hautagaien merezimenduak aurretik publikoak egin beharko liratekeela uste du.

J. Lakarrak irizpide nagusia lankide bakoitzaren egiazko lana dela uste du eta ezin daitekeela har irizpide nagusitzat denbora hutsa. P. Salaberrik ere gauza bera azpimarratu du, hots: bakoitza bileretara zenbat aldiz datorren, hor noizdanik dagoen eta bakoitzaren jarduna nolakoa izan den.

A. Urrutiaren ustez onargarria litzateke Zuzendaritzak adierazi legez, proposamenak bi multzotan egitea. Batzordeetan ibiliak, aholkulariak kenduta, Zuzendaritzak aztertuko lituzke, batzordeburu bakoitzarekin kontsulta egin eta gero. Eta urtarrilaren Osoko bilkurara etorriko dira horien izenak. Bestalde, euskalgintzatik jasoak, Zuzendaritzak irailean zabaldu luke deialdia, 2013. urtean prozesua bukatu ahal izateko. J. Lakarrak zerrenda nola osatuko den galdetu dio. A. Urrutiak erantzun dio, esanez, behin batzordeburuekin mintzatu ondoren, zuzendaritzak ekarriko lukeela, jada kontsentsuaturik. J. L. Lizundiak arautegia ere kontuan hartu behar dela gogorarazi du. Amaitzeko, P. Uribarrenek pertsonen curriculumak eta adina ere gogoan izatekoak direla azpimarratu du.

Ondorioz, Zuzendaritzak, hurrengo Osoko bilkurara Euskaltzaindiko batzordekide direnen zerrenda ekarriko du, euskaltzain urgazleen proposamenerako hautagai izan daitezkeenak, batzordeburuekin hitz egin ondoren.

## 10. Eskuarrekoak

### 10.1. Sinatu diren lankidetzak-hitzarmenak

**10.1.1. Baionako Herriko Etxearen eta Euskaltzaindiaren artekoa.** Urriaren 24an Baionako Mediatekan sinatu zen lankidetzak-hitzarmena. Horren bitartez, besteak beste, bertan Azkue Bibliotekako katalogo-funtsen indizeak kontsultatu ahalko dira, eta Mediatekaren baliabideetan Azkue Bibliotekaren lankidetzak aipatu da. Hitzarmena izenpetu ondoren, E. Goyheneche historialariaren *Onomastique du Nord du Pays Basque* (Iker bilduma, 27) liburuaren aurkezpena egin zuen liburuaren paratzailea den Xarles Videgain euskaltzainak.

**10.1.2. Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak sinatua.** Alde biek, Euskaltzaindiaren egoitzan bildurik lankidetzaz hitzarmena izenpetu zuten, besteak beste, ondokoak jasotzeko: Deustuko Unibertsitateko doktoregaiak eta beren ikerketak eta praktikak Euskaltzaindiaren egoitzan, Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta Akademiaren ordezkarietzan egin ahal izatea; erakunde bien ikerketa-funtsak erabiltzeko aukera, artxiboak eta bibliotekak barne; elkarlana eta bi erakundeek elkarrekin burututako argitalpenak sustatzea; Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan, Onomastikako izendegien arloetan harturiko erabakiak edo gomendioak erabiltzeko erraztasunak ematea; bi erakundeen arteko lankidetzaz politika bultzatzea, masterrak, graduondokoak, ikastaroak, biltzarrak edo sinposioak batera antolatu eta burutzeko.

**10.1.3. Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) eta Euskaltzaindiaren lankidetzaz hitzarmena.** Baionan, azaroaren 16an sinatu zen. Hor jasotzen da, besteren artean, 2012. urteko lan-jarduna burutzeko Euskaltzaindiak EEPetik jasoko duen laguntzaren zenbatekoa (140.000 euro); horren kontura argitaratuko diren liburuak; EEPren proiektu deialdik argitalpenen hizkuntza-kalitatearen azterketa; euskal toponimoen grafia egokiari buruz EEPek jasoriko galdeei erantzuteko era; toponimian Ipar Euskal Herriko euskara-teknikariak prestatzeko konpromisoa, eta IGNren toponimoen normalizatzeko lanaren emaitzak gizarteratzeko erabakia.

**10.1.4. IKAS euskal pedagogia zerbitzuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz hitzarmena.** Abenduaren 11n izenpetu zen Euskaltzaindiko Iparraldeko ordezkarietan. Hitzarmenean jasotzen da, besteak beste: Akademiak euskarari buruz emandako arauak zabaltzeko eta IKASek argitaraturiko materialen hizkuntza gainbegiratzeko konpromisoak; Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexiko Behatokitako, IKASeko pedagogia zerbitzuaren euskal testu multzoaz baliatzeko eta erazteko baldintzak, eta abar.

**10.2. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Euskaltzaindiaren arteko auzia.** Eusko Jaurlaritzatik Euskaltzaindiak 2012. urtean jaso beharreko laguntzetatik Kultura Sailburuak 190.000 euro atxiki hartu zituela eta, Zuzendaritzan eta Osoko bilkuran finkaturiko irizpideei segida emanez, A. Urrutia euskaltzainburuak errekurtsioa aurkeztu zuen. Urriaren 19ko aginduaren bitartez, Kultura sailburuak helegite hori ezetsi du. Ondorioz, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, azaroaren zazpian Oiartzungo udaletxean egindako bilkuran, errekurtsioa jartzea erabaki zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitegiatarako Aretoran.

**10.3. Nafarroako Epaitegi Nagusiaren epaia Zia toponimoari buruz.** Nafarroako eremu mistoan dagoen Itza udalerriko kontzejua da Zia, ofizialki Cía izendatua.



Kontzejuak Nafarroako Gobernuari Zia formaren aldeko eskaera egin zion. Gobernuak eskatutakoari ezezkoarekin erantzun ondotik, Kontzejuak gaia auzitara eramatea erabaki zuen. A. Iñigok prestatu zuen irizpen-txostena baliatu du Nafarroako Epaitegi Nagusiak bere epaia hartzerakoan. Hor garbi uzten du Epaitegiak Nafarroako Gobernuak halako euskal gaietan aurretik irizpen-txostena Euskaltzaindiari eskatu behar diola. Aurrekari garrantzitsutzat jo da Epaitegiaren erabakia, Zia eremu mistoko herria izanik, epaiak Zia euskal forma bakarra hobetsi duelako.

J. L. Lizundiak Nafarroako epai hori *Euskera* agerkarian argitaratzea eskatu du. Ontzat eman da.

**10.4. Azkue Sariak 2012. Epaimahaiko kideak izendatzea.** Euskaltzaindiko Zuzendaritzak (2012-11-27) epaimahaiko kideak izateko eginiko proposamena::

- A maila: Yolanda Arrieta, Igone Etxeberria eta Antton Irusta.
- B maila: Joseba Butron, Xabier Kaltzakorta eta Mayi Iza.

Osoko bilkurak izendapenok onartu egin ditu.

**10.5. Gasteizko Toponimia egitasmoa.** J. L. Lizundiak eta Roberto Gonzalez de Viñasprek idazki bat igorri dute idazkaritzara (2012-11-27). Hor Gasteizko Udalerriko Toponimia egitasmoaren zuzendaritza-lana uzten dutela adierazten dute. Honen jakitun geratu da Osoko bilkura.

**10.6. Argitalpenak eta aurkezpenak.** Gaur, ondoko argitalpenak aurkeztu ditu Euskaltzaindiak: *Euskera* agerkariaren bi ale. Lehenengoa, Akademiaren 2011ko ohi-ko jardunari dagokiona. Bigarrena, aldiz, urte berean *Arabatik Arabara euskaraz* izenaz egin zen XVI. Jagon Jardunaldian aurkezturiko txosten batzuk eta Baionan, Agosti Xahoz Literatura Ikerketa batzordeak antolaturiko jardunaldiari dagozkionak.

Bestalde, Exonomastika batzordeak landuriko eta Osoko bilkuretan onetsitako 169. (*Ozeaniako leku-izenak euskaraz*) eta 170. (*Amerikako leku-izenak euskaraz*) arauak argitaratu dira, Euskaltzaindiaren webgunean. Era berean, ondoko argitalpenak banatu dira: alde batetik, *Euskaltzaindia eta Ipar Euskal Herria*, Jean-Baptiste Battitu Coyos euskaltzainak paratua, eta azaroaren 16an Baionan aurkeztua; eta bestetik, *Erlea 6*. Bernardo Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen aldizkaria. Oraingo alea autobiografia eta harriari buruzkoa da.

**10.7. Euskaltzaindia Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan.** Abenduaren 6tik 9ra Durangon eginiko azoka horretan Euskaltzaindiak bere saltokia jarri zuen, hor urte osoan kaleraturiko liburuak salgai jarritz. *Euskaltzaindiaren hiztegia*. *Adierak eta adibideak* eta *Erlea 6*. zerbakiak oso harrera ona izan zuten.

**10.8. Aurkezpen berriak.** Urtarrilak 17, osteguna, Bilbon, EHU-UPVren egoitzan, Euskaltzaindiaren eta EHU-UPVren arteko lankide-hitzarmenaren inguruarbarrean, honako liburu hau aurkeztuko da: *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Era berean, III. Koldo Mitxelena sariak ere emango dira.

Urtarrilaren 19an, Maulen, *Maison du Patrimoine*-n, goizeko 10:30ean Txomin Peillenen *Jon Mirande olerkaria* liburuaren aurkezpena egingo da.

Aurkezpen hauen berri zehatza idazkariordeak emango die euskaltzainei urtarrilean.

**10.9. Euskaltzaindiko argitalpenak salgai Paypal bidez, gaurtik aurrera.** Euskaltzaindiak bere webgune bidezko salmentan aldaketak gauzatu ditu. Hemendik aurrera, bere webgunean eskaintzen dituen argitalpenak Paypal ordainketa sistemaren bidez erosi ahalko dira. Honetara, Euskaltzaindiak erosleekiko harremana erraztu eta hobetu nahi du.

**10.10. Hurrengo bilkurak.** Hurrengo osoko eta ageriko bilkurak datorren urtarrilaren 25ean izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundian. Ageriko bilkurari dago-kionez, ondoko hilberri-txostenak irakurriko dira:

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* euskaltzain urgazlearen hilberri-txosten bana Jean Louis Davant euskaltzain osoak eta Jose Austin Arrieta euskaltzain urgazleak irakurriko dute.

Karmele Esnal euskaltzain ohorezkoaren hilberri-txostena Miren Azkarate euskaltzainak irakurriko du.

Josu Arenaza euskaltzain urgazlearen hilberri-txostena Xabier Kintana euskaltzainak irakurriko du.

**10.11. Esker ona.** Bukatzean, gaur oraingo Zuzendaritzaren azken Osoko bilkura dela eta A. Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie orain arte Zuzendaritza lanean aritu direnei eta lan ederra opa die Zuzendaritza berriko kideei.

## 11. Azken ordukoak

Ez da halakorik egon.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da 14:05ean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria